

## **Nazioarteko Antzerki Eguna 2014**

### **Brett Bailey-ren Mezua**

Gizartea esistitzen den heinean, Antzerki Grina kontrolaezina plazaratzen da.

Herrixketako zuhaitzen azpian, eta metropoli handietako bulego teknologizatuenetan; eskoletako geletan eta zelai zein tenpluetan; auzo pobreenetan, hirietako plazetan, udaletxeetan eta sotorik ilunenetan... edonon antzeztutako munduek, berehala ahazten omen direnek, pertsonen arteko harremanak sortzen dituzte. Horrela -bizirik, arnastuz, ahotsez- adierazten dugu giza izaeraren konplexutasuna, gure aniztasuna, gure ahultasunak.

Negar egin eta gogoratzeko elkartzen gara; barre egin eta ingurua aztertzeko; ikasteko, usteak ziurtatzeko eta imajinatzeko. Teknologiaren aukerekin txunditu eta jainkoak gorpuzteko, hezurmamitzeko. Edertasuna, errukia eta izugarrikerien aurrean arnasa elkarrekin galtzeko. Energiak eta indarrez betetzen gara, gure kultura desberdinen osasuna ospatu eta banatzen gaituzten mugak deuseztatzeko.

Gizartea esistitzen den heinean, Antzerki Grina kontrolaezina plazaratzen da. Elkarrekintzaz sortzen da, eta gure tradizio desberdinen arropak eta maskarak jantziz moldatzen da. Gure hizkuntzak, erritmoak eta keinuak erabiltzen ditu; gure arteko desberdintasunak limurtzen ditu.

Eta guk, grina horrekin lan egiten dugun artistok, gure bihotz, idei eta gorputzen bidez, gure errealitateak transmititzen ditugu, egunerokotasun arruntenak zein misterio zirrargarrienak. Eta horrela asetzen gara.

Ezin ahaztu, ordea, milioika pertsona bizirauteko borrokan bizi direla gaur egun, kapitalismo basatiaren eta erregimen errepresiboen eragina sufritzen. Zerbitzu sekretuek gure bizitzako zirrikitu guztiak arakutzen dituzte eta gobernuek gure hitzak zentsuratu. Basoak suntsitzen ari dira, animaliak desagertarazten eta ozeanoak pozoitzen. Zer da *guk* transmititu behar duguna?

Desberdintasunez betetako mundu honetan, dogma hegemonikoek mezu argiak bidaltzen dizkigute: nazio bakarra, arraza bakarra, genero bakarra, sexu joera bakarra, erlijio bakarra, ideologia bakarra, kultura baten nagusitasuna... Benetan onartu dezakegu arteak eta agenda sozialak, nor bere bidetik, lan egin behar dutenik?

Antzoki eta eszenatokietako artistok, ez al da gure betebeharra merkatuaren eskaria eta gure eragiteko indarra baliatzea, bihotz eta buruetan gune askeak sortzeko? Gure inguruan jendea batzeko? Eragin eta informatzeko, eta elkartasunean eta itxaropenean oinarritutako gizarte bat sortzen laguntzeko?

Euskaratzailea: Iñaki Etxarri (Tartean teatroa)